



**Gaia: ATE IREKIEN JARDUNALDIAK
ETA BESTE ERAKARTZE-JARDUERA
BATZUK**

**Asunto: JORNADAS DE PUERTAS
ABIERTAS Y OTRAS ACTIVIDADES
DE CAPTACIÓN**

Jaun/andre agurgarria:

Estimado Sr/a:

Hurrengo komunikatuaren bidez, Arabako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak eskola-kiroleko erakunde guztiei, ikasturte/denboraldi amaieran antolatzen diren ate irekiko jardueri, detekzio jardueri edo antzekoei dagokienez, honako hau jakinarazi nahi die:

Mediante el siguiente comunicado, desde el Servicio de Deporte de la Diputación Foral de Álava en relación a las actividades de puertas abiertas, actividades de captación o similares que habitualmente se organizan a finales de curso/temporada, queremos informar a todas las entidades de deporte escolar lo siguiente:

Eskola-kirolaren programan jasota ez dauden haur eta beheragoko mailako jarduera guztiak, lehen aipatutako jarduera horiek bezala, ezin dira antolatu dagokion foru-organoaren baimena izan ezean (eskola-kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuaren 11. artikulua).

Toda actividad de categoría infantil e inferiores que no esté contemplada en el programa de deporte escolar, como lo son estas actividades, no puede organizarse salvo que cuente con la oportuna autorización del órgano foral correspondiente (artículo 11 del Decreto 125/2008, de 1 de julio, sobre Deporte Escolar).

Mota horretako jarduerak baimentzeko betekizunak kontuan hartuta, Arabako Foru Aldundiak honako baldintza hauek betetzen dituzten jarduerak soilik baimenduko ditu:

Atendiendo a los requisitos para autorizar este tipo de actividades, la Diputación Foral de Álava autorizará, exclusivamente, las actividades que cumplan las siguientes condiciones:

Egiteko aldia:

Periodo de celebración:

- Beste kirol-erakunde batean modalitatean/diziplinan inskribatuta dauden kirolari bat edo gehiago biltzen dituzten jarduerak egin beharko dira modalitate/diziplina eta **kategoria baten ikasturtearen lehiaketa-aldia amaitzen denetik hurrengo urteko programaren hasiera-datara bitartean.**
- Beste erakunde batzuetan modalitate/diziplina berean inskribatutako kirolariak ez dituzten jarduerak urteko edozein unetan egin ahal izango dira.

- Las actividades que, en el momento de su celebración, contemplen uno/a o más deportistas que estén inscritos/as en la modalidad/disciplina en otra entidad deportiva, deberán desarrollarse en el periodo **comprendido entre la finalización del periodo de competición de la modalidad/disciplina y categoría de un determinado curso escolar y la fecha de comienzo del siguiente programa anual.**
- Las actividades que no contemplen deportistas inscritos/as en la misma modalidad/disciplina en otras entidades podrán celebrarse en cualquier momento del año.



Kategoriak:

- Jarduera horietan parte hartzeko gutxieneko adina alebin kategoriako lehen urteari dagokiona da.
- Aurrekoa gorabehera, ate irekien jardunaldiak egin ahal izango dira aurrebenjamin eta benjamin kategorietan, baldin eta kirol-modalitate/-diziplina bat eta erakundearen funtzionamendua erakustea badute helburu, eta, nolahi ere, ondoren erakundearen bertan izena emateko aukera ematen badiete hala nahi duten parte-hartzaile guztiei, **kirol-mailari lotu ezin zaizkion irizpideen arabera**. Jardueraren publizitateak argi eta garbi jaso beharko du informazio hori.
- Ez da inolaz ere **aurrebenjaminetatik beherako kategoriarik** duen jarduerarik baimenduko.

Arau-hauste administratibo larria izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoari eta Kirolari buruzko martxoaren 30eko 2/2023 Legearen 143.u) artikuluan xedatutakoaren arabera, horrelako kirol-jarduerak antolatzea Arabako Foru Aldundiaren baimenik gabe edo dagokion ebazpenean emandako baldintzetatik kanpo.

Mota horretako jardueraren bat antolatu nahi duten eta eskola-kirolaren programan izena emanda dauden erakundeek eskola-kirolaren aplikazio informatikoaren (CUDE) bidez egin beharko dute eskaera, jarduera izan baino hilabete lehenago gutxienez, salbuespenezko zirkunstantziak eskaera arinago justifikatzen dutenean izan ezik. Beranduenez, jarduera hori egin baino 5 egun lehenago ebatziko da.

Horri buruzko edozein kontsulta egin nahi izanez gero, jarri harremanetan Kirol Zerbitzuarekin. Besterik gabe, agur bero bat.

Gasteiz, 2024ko apirilaren 30a.

Categorías:

- La edad mínima para la participación en estas actividades es la correspondiente al primer año de la categoría alevín.
- No obstante lo anterior, podrán desarrollarse jornadas de puertas abiertas en la categoría prebenjamín y benjamín, siempre que tengan por objetivo mostrar una modalidad/disciplina deportiva y el funcionamiento de la entidad, y que permitan la inscripción, posteriormente, en la propia entidad a toda aquella persona participante que así lo desee, en base a criterios que, **en ningún caso, podrán vincularse al nivel deportivo**. La publicidad de la actividad deberá recoger de forma clara esta información.
- En ningún caso se autorizarán actividades **de categoría inferior a prebenjamins**.

Constituirán infracción administrativa grave, sancionable a la luz de lo dispuesto en el artículo 143.u) de la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco, la organización de este tipo de actividades deportivas sin la autorización de la Diputación Foral de Álava o en condiciones diferentes a las emitidas en la resolución correspondiente.

Las entidades inscritas en el programa de deporte escolar que deseen organizar una actividad de esta tipología deberán realizar la solicitud mediante la aplicación informática de deporte escolar (CUDE), con una antelación mínima de un mes a la celebración de la misma, salvo que, circunstancias excepcionales, justifiquen una solicitud con menor antelación, resolviéndose, como muy tarde, 5 días antes de la celebración de la citada actividad.

Cualquier consulta al respecto, pueden ponerse en contacto con el Servicio de Deporte. Sin otro particular, un saludo.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de abril de 2024

Juan José Rojo Bazán
Director de Deporte